

NEBA-ARREBEN ARTEKO GATAZKEI BURUZKO AUTOEBALUAZIORAKO ELKARRIZKETA




Ondo egiten diegu aurre seme-alaben arteko gatazkei?



1. URRATSA: BIKOTEKIDEEK BANAN-BANAN ERANTZUNGO DIETE GALDEREI

1. Seme-alaben arteko gatazketan esku hartzen duzu? (eraso fisikorik gabeko gatazketan).
2. Zure ustez, zer da hobe, esku hartzea ala ez esku hartzea?
3. Zure ustez, zein da neba-arreben arteko gatazkei aurre egiteko modurik onena?
4. Hasten direnean, seme-alaben arteko eztabaidak eten egiten dituzu edo ez diezu jaramonik egiten?
5. Seme-alabek elkar jotzen dutenean, borroka eteten duzu edo amaitzen uzten diezu?
6. Zer zigor ezarriko zenieke elkar jo duten neba-arrebei?
7. Euren artean elkar jo ondoren, seme-alabak jotzen dituzu?
8. Zure ustez, zigor fisikoa ezarri behar zaio bere neba edo arreba jo berri duen umeari?
9. Nola erantzuten duzu neba edo arreba batek beste bat jo duenean eta zauri arina eragin dionean?
10. Neba-arrebak biktima eta erasotzaile moduan aurkezten dituzu elkarren aurrean? ("Egun osoa ari zara bera gogaitzen").
11. Zer iruditzen zaizu hori egitea?
12. Seme-alabei esaten diezu euren borrokek kalte fisikorik edo psikologikorik eragingo dizutela? ("Hil egingo nauzue", "Erotu egingo nauzue").
13. Zure ustez, umeei zer adinetan daukate elkarrekin hitz egiteko eta gatazkak konpontzeko gaitasuna, elkarrekiko eskubideak errespetatuta?
14. Zure ustez, neba-arreben arteko lehia onuragarria da eurentzat?
15. Zure ustez, zein da irtenbiderik onena neba edo arreba jaiotakoan umeak jeloskor daudenean?
16. Zure ustez, seme-alabak oso jeloskorrak izan dira edo dira?



2. URRATSA: BAKOITZAK EMANDAKO ERANTZUNA BALIOETSIKO DA HONAKO IRIZPIDE HAUEN ARABERA:

1. galdera

0 : beti, euren arteko eztabaidak gustuko ez ditudalako.

0.5 : sarritan, bestela elkar jotzen dutelako.

1 : konponbidea proposatzeko esku hartzen dut, baina gero bakarrik uzten ditut konpon dezaten.

2 . galdera

0 : nire ustez, esku hartu egin behar da halakorik ez gertatzeko. Hobe da eztabaidarik ez egotea.

0.5 : nire ustez, lantzean behin, euren arazoak konpontzen utzi behar diegu.

1 : nire ustez, hobe da ez esku hartzea. Euren prestakuntzari begira, ona da euren arazoak konpontzen ikas dezaten. Horrela, badakite zer egin bizitzari aurre egin behar diotenean.

3. galdera

0 : eten egiten dute, etxean bakea egon behar da-eta.

0.5 : horrelako egoerak ekiditen saiatzen naiz, baina gertatzen badira, ahal dudana egiten dut txarrera egin ez dezaten.

1 : naturala da eta euren garapen pertsonalerako ere egokia izan daiteke, besteen eskubideak errespetatzen ikasteko, esate baterako.

4. galdera

0 : eten eta banatu egiten ditut beti. Onena da.

0.5 : batzuetan eztabaidatzen uzten diet, nekatuta nagoelako.

1 : elkar jo ezean edo oihu egin ezean, ez ditut eteten. Ona da euren arazoak konpontzen ikastea.

5. galdera

0 : bere horretan uzten ditut, elkarri min eman arte.

0.5 : ez dut gustuko euren artean jotzea, baina batzuetan ez dago ezer egiterik.

1 : inoiz ez diet elkar jotzen uzten.



6. galdera

0 : jo egiten ditut, min ematen dutela jakin dezaten.

0.5 : ez diet kalera irteten uzten eta ez diet aste-saririk ematen.

1 : ekintzaren ondorioak euren gain hartzera behartuko nituzke edo jotzea zergatik ez den ona azaltzeko eskatuko genieke.

7. galdera

0 : beti.

0.5 : behin baino ez.

1 : inoiz ez.

8. galdera

0 : ondo iruditzen zait.

0.5 : ez dago bitarteko erantzunik.

1 : nire ustez, desegokiena da.

9. galdera

0 : biak zigortzen ditut.

0.5 : jotzailea zigortzen dut.

1 : erasoaren ondorioei erreparatzen diet, eta jotzaileari eskatzen diot neba/arreba sendatzen laguntzeko.

10. galdera

0 : beti

0.5: noizean behin baino ez

1: inoiz ez



11. galdera

0 : oso ondo iruditzen zait.

0.5 : ekiditen saiatzen naiz, baina batzuetan ezinezkoa da.

1 : ez dut inoiz egiten.

12. galdera

0 : sarritan egiten dut.

0.5 : ekiditen saiatzen naiz, baina batzuetan ezinezkoa da.

1 : inoiz ez naiz erdian jartzen, borrokan egitea eurentzat txarra dela esaten diet.

13 . galdera

0 : txikitatik.

0.5 : nire ustez, zortzi urte bete baino lehen, ez.

1 : nire ustez, lau urte dituztenetik.

14 . galdera

0 : batere ez, arazoa da.

0.5 : agian, bai, baina arazo gehiegi sortzen dira.

1 : onuragarria izan daiteke, beste pertsona batzuekin arazoak nola konpondu behar dituzten ikasteko.

15 . galdera

0 : ez diot jaramonik egiten, pasako zaio.

0.5 : berdin tratatzen dut eta besteari ez diot mimorik ematen haren aurrean.


1: bestearen premiak ulertzen eta sentitzen duena adierazten laguntzen diot.

16 . galdera

0 : oso jeloskorrak direla uste dut.

0.5 : zerbait, bai, baina ez larregi.

1 : ez dira oso jeloskorrak.



Bateragarritasun-indizearen balioespena: bi bikotekideen erantzunen balioespenak 0 puntukoak badira, bateragarritasun-indizearen puntuazioa 0 puntuko izango da. 0,5 puntukoak badira, ordea, puntuazioa 0,25 puntuko izango da. Puntu batekoak badira, puntuazioa 0,5 puntuko izango da. Euretako batek 0,5eko puntuazioa ematen badu eta bestearena puntu batekoa bada, bateragarritasun-indizearen puntuazioa 0,25koa izango da. Euretako batek 0 puntuazioa ematen badu eta bestearena 0,5koa bada, bateragarritasun-indizearen puntuazioa 0 puntuko izango da. Euretako batek 0 puntu lortzen baditu eta besteak puntu bat erdiesten badu, indizearen puntuazioa 0 izango da. **BAKOITZAREN PUNTUAZIOAK SARTU HURRENGO TAULAN:**

Galdera zenbakia	Amaren balioespena	Aitaren balioespena	Bateragarritasun indizea	GUZTIRA
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
11				
12				
13				
14				
15				
16				
GUZTIRA				

Bikotekide bakoitzaren balioespena: 0-8 **kode gorria** . 8-12 **kode urdina** 13-16 **kode berdea**

Balioespen orokorra: 0-24 **kode gorria** 24-36 **kode urdina** 37-40 **kode berdea**

Kode gorria: hurrengo irizpideak arretaz aztertu.

Kode urdina: hurrengo irizpideak aztertu.

Kode berdea: behar den moduan aurre egiten diezu gatazkei.



Gatazkei behar den moduan aurre egiteko hezkuntza-irizpideak I

- Denbora eta arreta handiagoa behar da neba-arreben arteko gatazka irakasbide moduan erabiltzeko eteteko baino. Neba-arreben arteko harremanak gatazkak konpontzeko eskola dira.
- Ahal izanez gero, hobe da gatazkan ez esku hartzea, beti ere konponbidea zuzentzen bada.
- Umeei eredutzat emandako gatazka-konponbideak baino ez erabiltzea.
- Umeei eredutzat emandako gatazka-konponbideekin bat egitea eta egonkorra izatea aldi batean.
- Esku hartuz gero, jokabide babesgarririk ez duen umea ez makurraraztea, konponbideari buruz hitz egitea.
- Eraso fisikoa, ahozko erasoan edo indarkerian oinarritutako konponbiderik ez onartzea.
- Zigorra ezarritik gero, zuzendu beharreko jokabidearekin eduki behar du zerikusia, ez dira jokabide horrekin zerikusia daukaten pribilegioak kendu behar.
- Gatazka ez etetea, naturaltzat hartzea eta eguneroko bizimoduko gatazka txikiak erabili elkarriketan oinarritutako konponbide sortzaileak proposatzeko.
- Gatazka argudiorik eman gabe, konponbiderik eskaini gabe eta zuzendu gabe ez etetea. Gatazka azaltzea, zenbait irtenbide proposatzea eta azken konponbidea neba-arreben esku uztea.
- Neba-arreben aurrean norbera euren gatazken biktima dela ez adieraztea (esate baterako, gurasoei gaixotasunen bat eragingo dietela esatea).
- Lau urte dituela, umea bestearen ikuspegia kontuan hartzeko adimen-gaitasunik badauka, konponbide-proposamenak eskaini bere gurariak bestearen nahiekin parekatzeko.
- Mehatxurik ez onartzea.
- Neba-arrebetako bat biktimatzat ez hartzea eta, arazo bere kabuz konpontzeko orduan, bereganako konfiantza dutela azaltzea.
- Eraso fisikorik badago: 1. eraso etetea. 2. egoera desagokia dela azaltzea. 3. aldi baterako banatzea. 4. gatazkari elkarriketaren bidez aurre egitea.
- Erasotzaileari zigor fisikorik ez ezartzea.

Gatazkei behar den moduan aurre egiteko hezkuntza-irizpideak II

- Erasotzaileari jaramonik ez egitea eta jokabide oldarkorrak bestearengan eduki dituen ondorio kaltegarriei erreparatzea.
- Erasoa zuzenean edo arlo sinboliko **edota** sortzaileetarantz bideratzen irakastea (horra hor panpinak, oldarkortasuna adierazteko marrazkiak, ahozko adierazpena).
- Jelaskortasuna gertakari naturaltzat hartzea.
- Jokabidea jelaskortasunaren ondorioa dela adieraztea **interpretazioa** da beti. Beraz, ezohiko edozein jokabide jelaskortasunaren ondoriotzat ez hartzea.
- *Eragindako jelaskortasuna* ekiditea, hau da, neba/arreba jaiotakoan umeak adieraziko omen dituen jokabideak saihestea.
- Umeak gurasoekin daukan lotura berrestea, jelaskortasuna prebenitzeko.
- Aita hazkuntzan gehiago inplikaturik, neba/arreba jaiotakoan umeek galtzen duten arreta konpentsatzea. Hurbileko beste pertsona batzuek ere bete dezakete zeregin hori.
- Antolatzeko orduan, oso kontuan hartzea tronua galdu duten umeek amarekiko elkarreragina ez dutela galdu behar. Umeari neba/arreba izango duela esatea eta familiaren eguneroko bizimoduan eragingo dituen ondorioak azaltzea.
- Gertatu baino lehen, neba/arrebaren jaiotzari garrantzi larregirik ez ematea.
- Jaiotzaren ostean, neba/arreba bakoitzak bere adinaren arabera zeregina izan beharko du.
- Erantzukizun gehiegi eman gabe, tronua galdu duten umeak seinaren atentzioan eta zainketan inplikatzeko.
- Jelaskortasunari larregizko garrantzirik ez ematea, oso kontuan hartzea horren bidez umeek beste pertsona batzuen emozioen, gurarien eta premien inguruko kontzientzia har dezaketela eta euren adimena gara daitekeela.
- Neba/arreba jaiotakoan umeek sentitzen duten frustrazioa “itzultzea” eta estimulatzeko.